



Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen 2018ko azaroaren 13ko EBAZPENA, 2018-2019 ikasturtean ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programa laguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duen Hezkuntza sailburuaren 2018ko maiatzaren 29ko aginduaren bidez deitutako dirulaguntzen lehen, eta bigarren berritzeak ebazten dituen.

Berritzeko eskaeren ebaluazioa eta Selektzio Batzordeak helarazitako proposamena kontuan hartuta eta aipatutako Aginduan xedatutakoa betez,

EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ematea ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako dirulaguntzaren lehenengo berritzea eta dagokien ezarpen zentroa zein kontratuak eta bidaiak finantzatzeko zentroak jasoko duen diru kopurua ezartzea.

Bigarrena.- II. eranskinean agertzen diren onuradunei ematea ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako dirulaguntzaren bigarren berritzea eta dagokien ezarpen zentroa zein kontratuak finantzatzeko zentroak jasoko duen diru kopurua ezartzea.

Hirugarrena.- Berritze horien dirulaguntzak ordaintzea xedapen honen I. eta II eranskinetan aurreikusten diren aplikazio-zentroei, maiatzaren 29ko Aginduak ezartzen duen moduan 6.6 artikuluan.

Laugarrena.- 2018ko maiatzaren 29ko aginduak xedatutakoaren arabera erabakiko dira dirulaguntza horien zenbatekoa, iraupena eta jasotzeko gainontzeko baldintzak.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Interesatuek Hezkuntza sailburuari gorako errekurtsioa jarri ahal izango diote administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko azaroaren 13a

Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen  
Adolfo Morais Ezquerro



HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN